

**PARQUE TECNOLÓGICO DE ÁLAVA-ARABAKO
TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.**

2020ko Gobernu Korporatiboaren txostena

2021eko martxoa



1. JABETZAREN EGITURA

1.1. Sozietatearen kapitala

2020ko abenduaren 31n, Sozietatearen kapitala honako hau da:

Azken aldaketa-data	Kapital soziala (€)	Akzio-kopurua	Boto-eskubideen kopurua
2020/12/22	50.279.982	824.262	824.262

Akzioak izendunak dira, 61 euro nominalekoak bakoitza, mota bakarrekoak, eta erabat harpidetuta eta ordainduta daude.

2020ko abenduaren 31n autonomia-erkidegoetan erregistratutako kapitala 2020/12/22ean eskrituratu zen, eta merkataritza-erregistroko aurkezpeneko idazpena 2020/12/22ean

1.2. Ekitaldiaren itxiera-datan, hauek dira partaidetzen titular zuzenak:

Akziodunaren izena edo izen soziala	Boto-eskubide zuzenen kopurua	Boto-eskubide guztien araberako %
SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial / Garapenerako Euskal Agentzia	545.061	66,13
ARABA GARAPEN BULEGOA ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO	260.814	31,64
GASTEIZKO UDALA AYTO. DE VITORIA	18.387	2,23

1.3. Ekitaldian mugimenduak izan dira akzio-egituran.

1.3.1 Kapital-gehikuntza:

Sozietateko Akziodunen Batzarrak kapitala 2.436.523 €-an handitzea onartu zuen 2020ko Azaroaren 12an, eta balio nominala harpidetze-unean bertan ordaindu beharko da osorik. Taula honetan daude jasota akziodunek erabat harpidetu eta ordaindutako zenbatekoak:

Akzioduna	Zenbatekoa (euro)
SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial / Garapenerako Euskal Agentzia	1.633.946
ARABA GARAPEN BULEGOA ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO	749.995
VITORIA-GASTEIZKO UDALA AYUNTAMIENTO VITORIA-GASTEIZ	52.582
TOTAL	2.436.523

1.4. Administrazio Kontseiluetako kideek ez dute sozietatearen akziorik.

1.5. Sozietateari ez zaizkio jakinarazi partaidetza adierazgarrien titularren artean dauden merkataritza, kontratu edo sozietate arloko izaera duten harremanak

- 1.6. Sozietateari ez zaio jakinarazi harengan eragina izan dezakeen hitzarmen parasozialik, eta ez da ezagutzen bere akziodunen arteko ekintza itundurik.
- 1.7. Sozietateak ez du akziorik autozorroan.
- 1.8. Estatutuetan ez dago mugarik boto-eskubideak gauzatzeari dagokionez.
- 1.9. Estatutu Sozialen 2. artikuluan ondoko murrizketa hauek ezartzen dira kapital sozialaren partaidetzen eskualdatzeri dagokienez:

«Sozietatearen akzioak besterendu gura dituen bazkideak, nahi hori idatziz jakinarazi beharko dio Administrazio Kontseiluari. Administrazio Kontseiluak hilabete bateko epean gainerako akziodunei jakinaraziko die. Akziodunek bi hilabeteko epea izango dute erosteko aukera izan eta erosketa gauzatzeko. Akzioak erosi gura dituztenak bat baino gehiago badira, horien artean banatuko dira, bakoitzaren partaidetzaren hainbanaketaren arabera.

Salgai dauden akzioak erosi nahi dituen inongo bazkiderik ez badago, Sozietateak erosi ahalko ditu, hogeita hamar eguneko epean, Legeak ezarritako muga eta ondorioekin.

Behin epea igarota, akzioduna libre izango da bere akzioak eskualdatzeko egokitzat deritzon moduan, eta horretarako bi hilabeteko epea izango du.

Aurretik ezarritako lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzeko, salmenta- prezioa, - eskualdatu beharreko akzioen balio errealak izan beharko da gutxienez - adostasunik ez badago, perituak finkatuko du. Aldeek elkarrekin adostuta izendatzen dute peritua edo, ados ez badaude, eskumena duen epaileak.

Baliogabetzat hartuko dira Sozietateetik kanpoko pertsonenganako akzio-eskualdaketak, Estatutuetan ezarritakora doitzen ez direnak».



2. SOZINETATEAREN ADMINISTRAZIO EGITURA

2.1. Estatutuetan, kontseilari kopuru hau aurrez ikusten da:

Estatutu Sozietateko 8. artikuluan honako hau ezartzen da: «*Administrazio Kontseilua zazpi kidek osatuko dute; horiek Batzar Orokorrek izendatuko ditu, akziodunek proposatuta...».*

2010-06-17ko Batzarrean, Estatutu Sozietateko 8. artikuluan aldaketa bat izan zen Administrazio Kontseiluari dagokionez, eta kontseilari kopurua 9ra zabaldu zen.

2020ko abenduaren 31n, zehaztutako kontseilari kopurua bederatzikoa da (9).

2.2. 2020eko abenduaren 31n, hauek dira Administrazio Kontseiluko kideak:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Kontseiluan duen kargua	Lehen izendapen-data	Azken izendapen-data
María Itziar Gonzalo de Zuazo and.	Kidea	2019.12.10	
Maidier Etxebarria García and.	Kidea	2019.10.02	
M ^a Pilar García de Salazar Olano and.	1. presidenteordea	2015.10.20	2020.06.17
Javier Zarraonandia Zuloaga jn.	Presidentea	2017.03.22	
Javier Hernando García jn.	Kidea eta Idazkaria	2015.10.20	2020.06.17
Estibaliz Hernández Laviña and.	Kidea	2013.02.20	2018.06.13
Leyre Madariaga Gangoiti and.	Kidea	2020.11.12	
D. Aitor Cobanera Rodríguez jn.	Kidea	2014.03.19	2019.06.12
Aitor Urzelai Inza jauna jn.	Kidea	2014.06.19	2019.06.12

Kasu guztietan, hautaketa-prozedura hau izan da: azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

2.3. 2020ko ekitaldian, kontseilari hauek utzi dute Administrazio Kontseiluko kargua:

Alexander Arriola Lizarriturri jn.
SPRI- AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIAL
GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

2.4. 2020an, Administrazio Kontseiluan honako aldaketa hauek gertatu dira:

Izena	Altako data
Leyre Madariaga Gangoiti and. SPRI- AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIAL GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA	2020.11.12
M ^a Pilar García de Salazar Olano and. ARABA GARAPEN BULEGOA - ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO	2020.06.17
Javier Hernando García jn. ARABA GARAPEN BULEGOA - ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO	2020.06.17

2.5. Kontseilari berriek ondoko dokumentazio hau dute eskura haien prestakuntza eta orientabiderako:

- a. Abuztuaren 11ko 232/1992 Dekretua, Eraldaketa Lehiakorreko Sozietatea SAr Arabako Teknologi Elkartegia, SA sozietate publikoa sortzeko baimena ematen diona.
- b. Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.-ren Estatutu Sozialak. (testu bategina).
- c. Administrazio Kontseiluaren Estatutua
- d. Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.-ren kode etikoa
- e. Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.-ren organigrama
- f. Gobernu Korporatiboaren txostena (Administrazio Kontseiluaren osaera barne)
- g. Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.-ren aurrekontuak
- h. Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.-ren Administrazio Kontseiluaren akten, azkeneko hamabi hilabetekoak

2.6. Hauek dira kontseilari exekutiboak:

Kontseilariaren izena edo izendapena	Duen kargua
Javier Zarraonandia Zuloaga jn.	Presidentea
Aitor Urzelai Inza jn	Kidea

Kontseilari exekutiboen kopurua guztira	2
Kontseiluaren % guztira	% 22

2.7. Hauek dira egungo kanpo-kontseilari dominikalak:

[OHARRA: SPRI, Gasteizko Udala, Araba Garapen Bulegoko kideak dira]

Kontseilariaren izena edo izendapena	Ordezkatzen duen edo izendatzeko proposatu duen akziodun adierazgarriaren izena edo izendapena
Maidier Etxebarria García and.	GASTEIZKO UDALA AYUNTAMIENTO. DE VITORIA-GASTEIZ
M ^a Pilar García de Salazar Olano and.	ARABA GARAPEN BULEGOA ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO
María Itziar Gonzalo de Zuazo and.	ARABA GARAPEN BULEGOA ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO
Javier Hernando Garcia jn.	ARABA GARAPEN BULEGOA ALAVA AGENCIA DE DESARROLLO
Javier Zarraonandia Zuloaga jn,	SPRI- AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIAL GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA
Aitor Cobanera Rodríguez jn.	SPRI- AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIAL GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA
Estibaliz Hernáez Laviña and.	SPRI- AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIAL GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA
Leyre Madariaga Gangoiti and.	SPRI- AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIAL GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA
Aitor Urzelai Inza jn.	SPRI- AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIAL GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

Kontseilari dominikalen kopurua guztira	9
Kontseiluaren % guztira	% 100

Urtean zehar ez da aldaketarik egon kontseilarien tipologiari dagokionez.

2.8. Administrazio Kontseiluak ez du kontseilari delegaturik izendatu.

2.9. Ez da Administrazio Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrik ezarri.

2.10. Kontseiluko kide batzuek Spri Taldea osatzen duten beste sozietate batzuetan administrari edo zuzendaritzako karguak hartu dituzte.

2020 ekitaldian Sozietateko Administrazioaileek ez dute Sozietatearekin, ezta Taldeko sozietateekin ere, ohiko zirkulazioz kanpoko edo merkatuko baldintza desberdinetan eragiketarik egin.

Era berean, 2020ko ekitaldia ixtean, Parque Tecnológico de Álava - Arabako Teknologia Elkartegia, SAREN Administrazio Kontseiluko kideek, eta Kapital Sozietateen Legean definitzen denaren arabera haiei lotutako pertsona batzuek, ez dute harremanik izan duten jardueratik norberarentzat edo Sozietatearentzat interes-gatazka eragin dezakeen bestelako sozietateekin. Administrazio Kontseiluari eta gainerako administrazioaileei ere ez zaie komunikaziorik iritsi 229. artikuluan zehaztutakoarekin lotuta, beraz, urteko kontu hauek ez dute jasotzen horrelako banakapenik.

2.11. Sozietateak ez du araurik ezarri kontseilariak parte har dezaketen kontseilu kopuruari dagokionez.

2.12. Administrazio Kontseiluak bere gain hartzen dituen erantzukizunak enpresari dagokionez, honako hauek dira batez ere:

- Inbertsio- eta finantzaketa-politika.
- Administrazio Kontseiluaren Araudia.

- Urteko kudeaketa-plana, baita bere egikaritzeari buruzko ebaluazio partzialak ere
- Goi-zuzendaritzako kideentzako pizgarriak eta haien jardueraren ebaluazioa.
- Enpresen onarpena.
- Sozietatearen eta talde bateratuaren urteko kontuen formulazioa.
- Eragiketa komertzialak, salmentak batez ere.

2.13. Sozietateak Kontseiluaren Estatutua du, Administrazio Kontseiluko kide guztiek berretsi eta sinatu dutena. Ondokoekin loturiko gaiak jasotzen ditu:

- Xedapen orokorrak.
- Kontseiluaren osaketa.
- Kontseiluaren egitura.
- Kontseiluaren Batzordeak.
- Kontseiluaren funtzioak.
- Kontseiluaren funtzionamendua.
- Kontseilariak izendatzea eta haien kargua uztea.
- Kontseilariaren betebeharrak (Kode Deontologikoa).
- Kontseilariaren eskubideak eta ahalmenak.
- Gobernu Korporatiboa.

2.14. 2020an ez da inolako ordainketarik izan Administrazio Kontseiluko kideentzat.

2.15. Administrazio Kontseiluak ez du zuzendaritza-kargurik izendatu, azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2.16. Ez dago berme- edo blindatze-klausularik Sozietatearen goi-zuzendaritzako kideen mesedetan, kontseilari exekutiboak barne.

2.17. Ekitaldian ez da Kontseiluaren Araudian aldaketarik gertatu.

2.18. Batzar Nagusiak adosten du kontseilarien izendapena, berrautaketa eta kargua uztea, eta ez dago horretarako aurretiazko prozedura espezifikorik.

2.19. Kontseilariak behartuta daude dimititzera kasu hauetan (Kontseiluaren Araudiaren 22. art.):

- *Izendatuak izan ziren epealdia igarotzen denean edo Batzar Nagusiak, legez eta estatutu bidez dituen eskumenak erabiliz, hala erabakitzen duenean.*
- *Legez aurrez ikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasu bat betetzen denean.*
- *Kontseilari gisa dituzten betebeharrak hausten dituztenean.*
- *Kontseiluan jarraitzeak Sozietatearen interesak arriskuan jar ditzakeenean.*

2.20. Honako neurri hau hartu da pertsona bakar batean ahalordeak metatzearen arriskuak mugatzeko: mankomunatatuko ahalordeak ematea Itziar Epalza Urquiaga andrearen, Aitor Urzealai Inza jaunaren eta Javier Zarraonandia Zuloaga jaunaren artean 300.000 eurotik aurrera, batez ere ondasun higigarri nahiz higiezinak erosteko, saltzeko, trukatzeko, kontratuak emateko, formalizatzeko, esleitzeko, luzatzeko, aldatzeko, berritzeko, eteteko eta bertan behera uzteko eta mailegu- edo kreditu-eragiketak harpidetzeko eta formalizatzeko, edonolako fidantza, abal, bahi, hipotekak eratzea, onartzea eta baliogabetzea eskatzeko eta abar.

- 2.21. Edozein motatako erabakiak hartzeko ez da legeak ezarritakoaz beste gehiengo sendorik eskatzen eta akordioak erdia gehi bat quorumaren arabera hartuko dira.
- 2.22. Kontseiluko presidenteari Estatutu Sozialetan eta Kontseiluaren Araudian ezarri zaizkion funtzioak, organo horren funtzionamenduari dagokionez, honako hauek dira:
- a.** Kontseiluaren bileretarako deialdia egitea eta horien buru izatea, ebazteko eta eteteko ahalmenarekin. Deliberazioak zuzenduko ditu, hitza nork duen erabakiko du eta mintzaldien iraupena zehaztuko du.
 - b.** Kontseiluaren bileren gai-zerrenda finkatzea.
 - c.** Kontseiluko kide guztiak bileretara bertara daitezen saiatzeari; horretarako, Araudi honetan xedatzen den moduan eta epeetan bidaliko dira deialdiak.
 - d.** Kontseilariren bat Kontseilura bertaratzen ez denean horren zioak egiaztatzea, ez bertaratzea errepikatzen denean.
 - e.** Kontseiluaren eta Batzarraren akordioak egikaritzea eta betearaztea.
 - f.** Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzeari, ebaluaziotik eratortzen diren hobetze-proposamenak martxan jartzea, hala dagokionean, edo hautemandako eraginkortasunik ezak zuzentzea.
- 2.23. Presidenteak kalitateko botoa du.
- 2.24. Kontseiluaren Estatutuek edo Araudiak ez dute kontseilarien adinari buruzko mugarik jartzen.
- 2.25. Ez dago prozesu formalik botoak Administrazio Kontseiluari eskuordetzeko, nahiz eta aktak idatziz egindako boto-eskuordetzeak soilik jaso.
- 2.26. Administrazio Kontseiluak lau bilera egin ditu 2020ko ekitaldian. COVID-19a dela eta, salbuespen gisa eta sailburuen segurtasuna bermatze aldera, hiru saio bideokonferentzia bidez egin dira. Presidenteak hiru bileratan egon da eta egon ez den bileran botoa eskuordetu du.
- 2.27. Orotara ekitaldian, kontseilariak 4tan ez dira agertu Administrazio Kontseiluaren bileretara, eta horietan denetan eskuordetu da botoa
- 2.28. Formulatuak izan daitezkeen, Kontseiluari aurkezten zaizkion urteko kontuak alde aurretik egin dira Miren Lourdes Bilbao Larrauri gerentearen gainbegiratzepan.
- 2.29. Administrazio Kontseiluak ez du mekanismorik ezarri berak formulatutako urteko kontuak Batzar Nagusian aurkeztea galarazteko, ikuskaritza-txosteneko salbuespenak kontuan izanda.
- 2.30.- Kontseiluko idazkariak kontseilari izaera du.
- 2.31. Kontseiluaren osoko bilkurak onartzen du Kontseiluko idazkariaren izendapena eta kargu-uztea.
- 2.32. Kontseiluko idazkariaren funtzioa da funtzionamendu-arauak egoki aplikatzen eta aktak jasotzeko zein sinatzeko prozedurak egoki garatzen direla bermatzea. Horrez gain, akta-liburuak eta akziodunen liburuak zaindu behar ditu eta akordioak izapidetu.
- 2.33. Kontuak ikuskatzen dituen enpresaren independentzia bermatzeko, lehiaketa publikoaren mekanismoa erabiltzen du sozietateak, hartara, publikotasuna, objektibotasuna eta konkurrentzia bermatzen baitira.

- 2.34. 2020ko ekitaldiko urteko kontuen ikuskaritza-txostenean ez da erreserba edo salbuespenik ageri.
- 2.35. Auditoriaren egungo enpresa, PKF ATTEST Servicios Empresariales, SL, 2019-2021 aldirako izendatu da 2019ko abenduaren 10ean egindako Akziodunen Batzarrean, sozietatea eratu zenetik auditatuta egonik.
- 2.36. Dagozkien funtzioak egiteko laguntza jasotze aldera, kontseilariak lege- aholkulariak, kontulariak, finantza-aholkulariak edo bestelako adituak kontrata ditzakete edo bileretara joan daitezzen eska dezakete. Halako laguntzaile bat eskatzeko, beharrezkoa da argitu nahi diren arazoek gutxieneko munta eta konplexutasun maila izatea, eta karguaren jardunean agertutakoak izatea.
- Kontratatzeko erabakia Kontseiluko presidenteari jakinarazi beharko zaio, eta betoa jar daskioke baldin eta ondokoa frogatzen bada:
- Ez dela beharrezkoa agindutako funtzioak egoki egiteko.
 - Kostua ez dela arazoizkoa arazoaren garrantzia ikusita.
 - Sozietateko aditu eta teknikariak egoki eman dezaketela eskatutako laguntza teknikoa.
- 2.37. Kontseilariak administrazio-organoen bilerak nahikoa denborarekin prestatzeko behar den informazioa izan dezaten, gutxienez hamar egun naturaleko aurrerapenarekin bidaliko da deialdia, baldin eta gutun bidez egiten bada, eta zazpi eguneko aurrerapenarekin, baldin eta posta elektronikoko bidez egiten bada, kontseilariak kasu bakoitzean adierazitako helbidera. Deialdi horretan, bileraren gai-zerrenda eta dagokion informazioa emango dira beti.
- 2.38. Administrazio Kontseiluko kideei etengabe informazioa emateko sistema garatu du enpresak. Hala, Administrazio Kontseiluaren bileren gai-zerrendaren barruan informazio ekonomikoa, finantzarioa eta jarduerari buruzkoa jasotzen da, eta horrez gain, zuzenean egoeraren berri izateko informazio garrantzitsua ematen da.
- 2.39. Administrazio Kontseiluaren Araudiari gehitu zaio kontseilarietzako Kode Deontologikoa, kide guztiek bete beharreko irizpide etikoak eta jokaera-irizpideak jasotzen dituenak. Kode horretan hainbat irizpide ezartzen dira, besteak beste, etikoki onargarriak diren erabakiak hartzeko, kontseilarien artean izan daitezkeen interes-gatazketarako, gatazka horiek konpontzeko, etab. Era berean, ondoko kapituluetan egituratuta dago kodea:
- Jokabide-irizpideak
 - Kontseilarien betebeharrak
 - Isilpekotasun-betebeharrak
 - Gardentasunaren eta informazioaren betebeharrak
 - Interes-gatazka
 - Sozietatearen izena erabiltzea
 - Informazio ez-publikoa
 - Lotutako pertsona
- 2.40. Administrazio Kontseiluko kide batek ere ez dio jakinarazi Sozietateari prozesatu dutenik edo haren aurka ahozko epaiketa irekitzeko autoa eman denik, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 213. artikuluan adierazitako delituak direla-eta.



2.41. Urtero inkesta baten bidez ebaluatzen da Administrazio Kontseilua eta galderak arlo hauei buruzkoak dira, besteak beste: bileren datak, deialdiak, gai-zerrendako gaien buruzko informazioa, informazio-eskaerei emandako arreta, etab.



3. LOTUTAKO ERAGIKETAK

Lotutako erakundeekin egindako eragiketatzat hartuko dira taldeko enpresekin eta elkartuekin egindakoak. Horrez gain, Sozietatearen izaera publikoaren eragina izan dezaketen Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeekin egindako transakzioak biltzen dira.

2020 eta 2019 ekitaldietan Sozietateak transakzioak egin dituen eta lotura duten alderdiak, eta lotura horien izaera, honako hauek dira:

	Loturaren izaera / Naturaleza de la vinculación
SPRI- Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial / Garapenerako Euskal Agentzia (*)	Akzio-gehiengoduna eta taldeko sozietate nagusia / Accionista mayoritario y sociedad dominante del grupo
Centro de Empresas e Innovación de Álava - Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, S.A.	Taldeko enpresak / Empresa del grupo
Araba Garapen Agentzia SA / Álava Agencia de Desarrollo, S.A	Akzioduna / Accionista
Parque Tecnológico – Teknologi Elkartegia, S.A.	Taldeko enpresak / Empresa del grupo
Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa	Taldeko enpresak / Empresa del grupo
Finantzen Euskal Institutoa-Instituto Vasco de Finanzas	Lotutako enpresa / Empresa vinculada
Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava	Akzioduna / Accionista
Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria – Gasteiz	Akzioduna / Accionista

3.1. Lotutako erakundeak

2020 eta 2019 ekitaldien itxieran lotutako erakundeekin izandako saldoak honako hauek dira:

2020 ekitaldia

2020.12.31	Hornitzaileak taldeko enpresak eta empresa elkartuak / Proveedores empresas del grupo y asociadas	Epe luzerako Epe laburrerako zorrak / Deudas a corto plazo	Epe luzerako zorrak / Deudas a Largo Plazo
SPRI- Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial / Garapenerako Euskal Agentzia	16.725	2.100.000	-
Finantzen Euskal Institutoa-Instituto Vasco de Finanzas	-	154.207	573.998
Guztira / Total	16.725	2.254.207	573.998



2019 ekitaldia

2019.12.31	Hornitzaileak taldeko enpresak eta empresa elkartuak / Proveedores empresas del grupo y asociadas	Epe laburrerako zorrak / Deudas a corto plazo	Epe luzerako zorrak / Deudas a Largo Plazo
Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial / Garapenerako Euskal Agentzia	7.748	-	2.100.000
Finantzen Euskal Institutoa-Instituto Vasco de Finanzas		154.207	706.926
Guztira / Total	7.748	154.207	2.806.926

2020 eta 2019eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan egindako transakzioak honako hauek dira:

2020 ekitaldia

2020	Jasotako Zerbitzuak / Servicios Recibidos	Zerbitzu emateak / Prestación de Servicios	Finantza gastuak / Gastos financieros
SPRI- Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial / Garapenerako Euskal Agentzia	14.791	50.152	7.875
Parque Tecnológico de Bizkaia, S.A. - Bizkaiko Teknologi Parkea, S.A.	21.290	6.531	-
Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A	-	471	-
Fiantzen Euskal Institutoa - Instituto Vasco de Fianzas	-	-	21.278
Guztira / Total	36.081	57.154	29.153

Ejercicio 2019

2019	Jasotako Zerbitzuak / Servicios Recibidos	Zerbitzu emateak / Prestación de Servicios	Finantza gastuak / Gastos financieros
SPRI- Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial / Garapenerako Euskal Agentzia	9.701	51.267	-
Parque Tecnológico de Bizkaia, S.A. - Bizkaiko Teknologi Parkea, S.A.	8.122	-	-
Fiantzen Euskal Institutoa - Instituto Vasco de Fianzas	-	-	25.095
Guztira / Total	17.823	51.267	25.095

Lotutako alderdiekin egindako transakzioak Sozietatearen ohiko trafikoaren eragiketei dagozkie eta merkatuko prezioan egiten dira; prezio horiek lotu gabeko erakundeei aplikatutakoan antzekoak dira.

3.2.- Administrariak eta goi-zuzendaritza

2020ko eta 2019ko ekitaldietan, Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideek ez dute soldatengatik, dietengatik edo beste kontzeptu batzuegatik inolako ordainsaririk jaso edo sortu.

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n, ez du obligaziorik Administrazio Kontseiluko eta Goi Zuzendaritzako lehengo edo egungo kideen pentsioei eta bizi-aseguruei dagokienez, ezta horien kontura, berme gisa, bereganatutako eskubiderik ere. 2020ko ekitaldian, 5.307 euroko prima ordaindu da administratzaileentzat kontratatutako Erantzukizun Zibileko aseguruagatik (5.125 euro 2019ko ekitaldian).

2020 eta 2019ko ekitaldietan, ez da gertatu merkataritza-sozietate baten eta bertako edozein bazkideren edo administratzailearen edo haien kontura diharduen edozein pertsonaren arteko edozein kontraturen amaierarik, aldaketarik edo azkentzerik, sozietatearen ohiko trafikotik kanpoko eragiketa denik edo ohiko baldintzetan egiten ez denik.

4. ARRISKUEN KONTROLA

Sozietatearen finantza-arriskuen kudeaketa Finantza Zuzendaritzan dago zentralizatuta. Horrek interes-tasetan eta kanbio-tasetan aldaketekiko eta kreditu-eta likidezia-arriskuekiko esposizioa kontrolatzeko beharrezko mekanismoak ditu ezarrita. Jarraian, Sozietateari eragiten dioten finantza-arrisku nagusiak adierazten dira:

4.1. Kreditu-arriskua:

Oro har, Sozietateak altxortegia eta aktibo likido baliokideak kreditu maila altuko finantza-erakundeetan mantentzen ditu. Bestalde, hainbat bezeroren artean banatuta dagoenez, ez dago kreditu-arriskuaren kontzentrazio nabarmenik.

Sozietateak, aurrez, lokalak errentan jartzeko edo lursailak saltzeko eskeren banakako azterketa egiten du. Bestalde, zatika ordaintzen bada, higiezinak jabaria erreserbatzeko itunarekin formalizatuta daude, hitzartutako zenbateko guztiak ordaintzen diren bitartean, eta orduan formalizatzen da jabetzaren transmisioa. Hori dela eta, ez da horrekin lotutako arrisku nabarmenik antzeman. 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n ez zegoen kreditu-aseguruen bidez kobratzera bermatutako konturik.

4.2. Likidezia-arriskua:

Dagoeneko hitzartutako ordainketei eta/edo inbertsio berrien ondoriozko konpromisoei aurre egiteko Sozietateak aldi baterako ezintasuna izateko arriskua da. Sozietatea kide den Taldeko Finantza Zuzendaritzak batera zehazten ditu altxortegiko beharrak, eta behar horiek behar besteko aurrerapenez identifikatzen ditu, finantzaketa-behar berriak garaiz planifikatu ahal izateko.

Inbertsio-eragiketek sortutako finantza-beharrak haren bizitzaren arabera egituratzen eta diseinatzen dira. Oro har, finantzaketa hori akziodunen kapital-zabaltzeen bidez edo finantza-erakunde edo bestelako kreditu-erakunde batzuetan interes-tasa baxuak dituzten maileguak kontratatuz lortzen da.

Sozietateak jarduera garatzeko beharrezkoak dituen finantza-baliabideak eskuratzeko gaitasuna EAEko Urteko Aurrekontuetan ezartzen da. Finantza-baliabide horien

inguruko baldintzak, aktiboak nahiz pasiboak, Euskal Administrazioaren eta bertan operatzen duten finantza-erakundeen artean, normalean urteko izaerarekin, sinatzen den Hitzarmen baten bidez arautzen dira. Hitzarmen horrek zehazten ditu Euriborraren inguruan kasu bakoitzerako aplikagarri diren interes-tasak, komisioak eta abar.

Likidezia ziurtatzeko eta jardueraren ondorioz sortutako ordainketa-konpromiso guztiei aurre egin ahal izateko, Sozietateak altxortegia du, eta hark balantzea erakusten du. (10. Oharra)

Finantza-egitura

1. oharrean adierazten den bezala, Sozietatea SPRI Taldearena da. Taldeko eragiketen finantzazioa akziodunek adostuta egiten da, kreditu-erraztasunak eta kapital-zabaltzeak kontratatuz egiten da aurrez ikusitako beharrei aurre egiteko, betiere, zor-merkatuen eta kapitalen egoeraren eta aurreikuspenen araberrako aldirian.

4.3. Merkatu-arriskua:

Egoera ekonomiko orokorrak baldintzatzen du Sozietatearen jarduera, eta hura, berriz, eragiten duten zikloen mende dago.

Hala ere, arrisku horiek arintzen dira Sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoan politika industrialeko tresnak garatzen dituelako eta, beraz, ez ditu bere aktiboak jarduera gauzatzen duen sektorearen ohiko denbora-mugan gauzatu behar.

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n ez zegoen atzerriko txanponean kobratzeko edo ordaintzeko konturik.

4.4. 2016. urtearen amaieran onartutako Zigor Arriskuen Prebentzioari buruzko Eskuliburuan aurreikusitako monitorizazioa eta kontrolak egin dira. Nabarmendu behar da, halaber, 2020an ez dela salaketarik jaso.

4.5. Administrazio Kontseiluko abokatu aholkulari bat izendatu da, Kontseiluan lortutako akordioen balio juridikoa bermatzeko mekanismo gisa.

4.6. Administrazio Kontseiluko kide guztientzat erantzukizun zibileko estaldura duen aseguru-poliza kontratatu da, enpresaren kontura, Kontseiluko kideen erantzukizun-erregimenaren aplikazioa dela-eta sor daitezkeen gatazken aurrean lege-estaldura izateko.



5. BATZAR NAGUSIA

- 5.1. Batzar Nagusia eratzeko quorumari dagokionez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateei buruzko Legean aurrez ikusitako gutxieneko erregimenarekin.
- 5.2. Akordio sozialei dagokienez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateei buruzko Legean aurrez ikusitako erregimenarekin.
- 5.3. Batzar Nagusiak izaera unibertsalarekin egin ohi dira.
- 5.4. Batzar Nagusiko presidentea eta Administrazio Kontseiluko presidentea pertsona bera dira.
- 5.5. Sozietateak ez du egin Batzar Nagusiko Araudirik.
- 5.6. Hauek dira txosten honi dagokion ekitaldian egindako Batzar Nagusietara bertaratutako datuak:

BATZARRAK	Eguna	Bertaratutako datuak		
		Presentzia fisikoaren %	Ordezkaritzaren %	Guztira
Ohiko Batzar Nagusia	2020.06.17	% 100	% 0	% 100
Ezohiko Batzar Nagusia	2020.11.12	% 100	% 0	% 100

- 5.7. Txosten honi dagokion ekitaldian egindako Batzar Nagusietako akordio guztiak aho batez hartu dira. Hauek dira:

2020ko ekainaren 17an egindako Ohiko Batzar Nagusia

1. Sozietatearen urteko kontuak (egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera eta memoria), kudeaketa-txostena eta Sozietatearen emaitza aplikatzeko proposamena aztertzea eta onestea, hala badagokio. Hori guztia 2019ko 31n itxitako ekitaldiari dagokionez.
2. Administrazio Kontseiluko kideak berrautatzea.
3. Bileraren akta irakurtzea eta onestea, hala badagokio

2020ko azaroaren 12an egindako Ezohiko Batzar Nagusia

1. Kontseilariak kargutik kentzea eta izendatzea.
2. Kapitala zabaltzea 2.436.523 eurotan, eta Estatutu Sozialen 2. artikulua aldatzea.
3. Hartutako akordioak jendaurrean jartzeko eskumena.
4. Bileraren akta irakurtzea eta onestea, hala badagokio.

- 5.8. Estatutuetan ez dago mugarik Batzar Nagusira joateko beharrezkoa den gutxieneko akzio-kopuruari buruz.

AZKEN OHARRA:

Administrazio Kontseiluaren Estatutuaren edukia ikusteko, webgune honetara jo daiteke zuzenean: www.parke.eus